



HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Inp. R. Fernández J. Azara 27. 48101

26. Zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

60 pta.

1988 Azaroa

FERMIN URTIZBEREAREN BAHIKETA



PABLO ETXEBESTE, 58 urtetako "Bamotxinoko" arrantzalea ekarri dugu gure orrietara. Urte askoz patroia izan delarik, ondo ezagutu ditu itasoko kontu guztiak. Bakoitzak bezala badu bere Hondarribia eta horretaz hitz egitera jo dugu beragana.

* * *

Martin Ugaldek bere iritzia ematen du azken gertakariez.

Lourdes Zubeldiak garai bateko errefuxiatuen goseaz hitz egiten digu.

Juan San Martinek Hondarribian jasotako antzinako kantak aipatzen dizkigu.

Juan Jose Lapitzek Bentan erretegi bat jartzea proposatzen du.

Sorkundek kanposantuaren berri ematen du.

"Ama Guadalupeko" ikastetxetik hiru lan irakurgarri etorri zaizkigu.

Eta beti bezala, arrantza, nekazaritza, e.a.

Azaroako lehen asteburua amets gaizto bat irudituko zaio bati baino gehiagori. Zorritzarrez ez da ametsa izan, eta zorionez ez da askok etsipenaren etsipenaz espero zuten azken makurra ere gertatu. Fermin laguna gure artean dago eta bego luzaroan herriaren onerako. Hala ere, arazoaren sustri ustelak hortxe daude oraindik, lehen bezalaxe, argitzeko eta erantzunkizunak eskatzeko. Lerro hauetan gertakarien kronologia biltzen saiatu gataizkizue, ondoko egunetan sortu den komunikatu gerlari iritsi gabe.

Urriaren 31, astelehena.

Fermin Urtizbereak bi kotxek jarraitu ziotela salatzen du Hondarribiko Udaltzainguan: Peugeot batek (SS-1831-Z) eta Seat Panda batek (SS-8554-P). Azken honetan Victor Manuel Navascués ikusi zuela esan zuen Ferminen. Ikerketaren arabera Peugeot-en matrikula ez zen existitzen eta Seat-ena Ford Fiesta batena zen.

Azaroak 3, osteguna.

Simón desagertzen da gaueko hamabietan. Azken aldia afaldu ohi duen jate-txean ikusi zuten. Ez da bere etxean agertzen. Handik ordubetera Ximonen lagun bati telefonoz deitzen diote "vuestro amigo Simón está muerto" esanez.

Azaroak 4, ostirala.

Hurrengo goizean HBko kide bat koalizioaren egoitzara doa eta atea irekita aurkitzen du. Atea bortsatu gabe dago. Baruan asalto bat egon dela nabari da eta gauzak nahasiak, puskatuak, eta pintadak daude horietan: "Muera ETA fascista, viva España, Viva GANE".

Auzoko emakume batek giltza batzuk aurkitzen ditu egoitzaren eskaileretan eta ondoko denda batera eramaten ditu. Giltzak Ferminenak dira.

Orduantxe sortzen da lehen susmoa: egoitza asaltatu dutenek Fermin bahitu



dute. HBko zinegotziek denuntzia egiten dute Donostiako Gardia Epaitegian. Ordu bietan bilaketan haste dira udaltzainak.

Arratsaldean Ferminen Ford Sierra aurkitzen dute Zakarrenean, hutsik eta atek zabailik. Ondoren Ferminen bilaketari ekiten zaio inguru haietan. Lehen bilaketan herriarrek eta udaltzainek hartzen dute parte.

Iluntzean manifestazio bat egiten da eta ondoren asanblada bat hurrengo bilaketa antolatzeko eta koordinatzeko.

Azaroak 5, larunbata.

Goizean, besteak beste, Erreterria, Pasaia eta Iruindik etorritako lagunek hartzen dute parte bilaketan. Gasteiztik etorritako ertzainek eta gardiazibilek ere bai.

Eguerdiko 1,25ean Plenoa biltzen da eta istiluak direla eta suspenditu egiten da.

Arratsaldean manifestazio bat antolatzen da Hondarribian 1.000tik gora edo 2.500 lagunek osatuta iturburu batzuen eta besteen arabera. Zabalarren txokotik abiatuta, Alamedatik igaro eta Hiri Zaharra zeharkatu ondoren Zabalarren txokora itzuli zen manifestazioa inolako istulirik gabe. Bertan amaitu zen "Eusko gudariak" kantatuta. Aurreko pankartak "PSOE, Fermin non dago?" zioen eta beraz izan da manifestazioa bitartean gehien entzun den oihua, "PSOE-GAL berdin da", "La Policía tortura y asesina" ere entzun direlarik, preso eta ETA militarren aldeko beste batzuen artean.


Mobilizazioak gertatzen dira Hego Euskal herriko hainbat herrian ere. Pintadak eta Ferminen argazkia erakusten duten kartelak non-nahi ageri dira. Donostian bostehun lagun dabilta kalez kale eta azkenean Avenidan autobus batzuk zeharka jarri eta beste zenbait tokitan barrikadak antolatuta ondoren polizia nazionalarekin errentamentuak, ke poteak, gomazko pilotak, e.a. dira, Parte Zaharrean batez ere, Egián eta Amaran. Antzeko gertaerak dira Bilbon, Gasteizen eta Iruinean. Asanbladak, manifestazioa, errepide etenak, e.a. dira beste herri batzuetan ere: Tolosan, Errenterian -autobus bat erre zuten ostiralean-, Ordizian, Andoain, Tuteran, Mutriku, Elgoibar, Zarautz, Altsasu, Lekitio, Basauri, Ondarroa, Laudio, Durango, Iruñen, e.a....

Arratsaldeko 7,30etan dei bat jasotzen dute Donostiako DYAn GALEn izenean Fermin gorputza Mendizorrotzan dagoela esanez, Igelido eta Usubilen artean. Han ere DYAkoe ez dute ezer aurkitzen. Diario Vasco-n ere beste dei bat jasotzen dute GANEren izenean bahiketaren ekintza bere gain hartuz.

Ferminen desagertu baino lehen eskutitz bat utzi ziola lagun bati aipatzen du Castells abokatuak. Eskutitza urriaren 30ean idatzia zen eta zer bait gertatzen bazaitza inkeitzeko utzi zuen Ferminen. Eskutitzaren edukia isilpean gordetzen da.

Bestetik, HBko Mahai Nazionalak, Donostian bildurik, dei egiten die herritarrei Ferminen bilaketan parte hartu eta ekintza

honi gogorri erantzutera. Bestetik, PSOE jotzen du bahiketaren erunduntzat eta PNV eta EA haren laguntzaileatzat. Gertara hauen aurrean ere Udal guzietan jarrera bat hartzeko eskatuko diela ere adierazten du.



Ferminen kotxea honela agertu zen.

Azaroak 6 igandea.

Hirurehun bat lagun elkartzen dira goizeko bederatzieta Alondegian bilaketari ekiten. Batzuk Pasai Donibane eta TVEn repetidorearen arteko aldean, beste batzuk Iruindik Alako Harrietara. Hondarribiko arrantzaleak ere itsasoz biltzen dute.

Eguerdian EA eta EEko ordezkariak prentsaurreko bat ematen dute Udaltexean Ferminen bahiketa eta Plenoak indarkeriak kondenatuz.

Arratsaldean, dei batzuk jasotzen dira zenbait komunikabidetan GALEn izenean. Horietako batean talde horren gain hartzen du Ferminen bahiketa, eta atentatu berriak egingo dituztela iragartzen du, HB egoitzen aurka eta Amnistiarekin Aldeko Batzordeak antolatzen dituzten manifestazioetan, beraien ere badakitela bomba-kotxeak idatzten (hala ere, 7an frantsez kutxako dei batek GALEk Espainian oraindik ez duela ekintzatik egin esango du eta ez dutela batera zerikusirik Ferminen bahiketarekin). DYAn GANEren izenean jasotako dei batek Fermin Zumarraga eta Uretxuren artean dagoela esaten du.

Arratsaldeko Betarako lau bat mila lagun biltzen dira manifestazioan Ferminen askatasuna eta errudunen zigorra eskatzeko. Manifestazioaren buruan Josi Lasa, Josean Zabala, eta Ferminen beraren argazkiak doaz kalez kale. Manifestazioaren bukaeran autobus bat erretzen dute batzuek herriko sarreran.

Gaueko hamaika t'erdietan Ximon agertzen da Hondarribiko Udaltzaingoa Inpezioan. GANE daukan bulearrean idatzia eta erreduarak buruan. Inpeziotik lagun batzuei deituko eskatzen du eta hauek berehala jasotzen dute.

Berria jakin bezain laster ehundaka pertsona biltzen dira San Pedro kalean

HBren egoitzaren inguruan berriak jakin eta Fermin ikusi nahian. Fermin ez dago, ordea. Poz giro alai eta zaratzatsua da nagusi; kotxe batek megafoniak berria zabaltzen du Portuko kaleetan, suziariak, musika, be-

sarkadak, e.a. HBren egoitzan pankarta batek "Ongi etorri, Ximon" dio. Eta guk lerro hautatik ere bai.

BAHIKETA

Ferminen berak ondoko egunetan kontatu duenaren arabera bahitzaileak hiru kotxetan agertu ziren: Ford Fiesta bat, Peugeot bat, 505 edo 504, Iparaldeko 64 matrikula zeukana, eta Renault 18 bat. Bahitu ondoren ordu erdi edo eraman zuten kotxean. Autopistan, segur aski inongo semoforotan ez bait ziren gelditu. Gero pisa batzuk zituen etxe batera igo zuten aszensore batean. Leku horretan kaputxaz estalia eta eskuak loturik eduki zuten egunotan. Gauaz ez omen zuen ezer entzuten, egunez, berri, autoak eta haur jolasak. Handik beste etxe batera eraman omen zuten, abandonatua edo obretan zegoen etxe batera. Denbora guztian lau kide egon ziren berarekin eta haien artean buru edo zenak galego kutxua zeukan hizekera. Irailaren 27an hiltzeko asma zutela, esan zioten, "Gudari Egunean", baina gero azaroaren 20rako uztia erabaki zutela. Bestetik, bilaketan ari zen jendea oso hurbil zebilenez, izuturik zeudela eta libre uztia erabaki zutela. Egun horietan ez omen zioten ez jaten eta ez edaten eman.

Bahitzaileek Lezoko bide batean utzi zuten Fermin igande gaueko hamaikak eta laurdenetan. Han ordu erdi edo bueltak ibili ondoren Olazar baserri iristen da Fermin eta bertako Jose Kruz Sarasuak Hondarribiko Inpezioara ekartzen du bere kotxean. Inpezioan agertzen denean, nekatu itxuraz, GANE dauka bulearrean idatzia eta erreduarak buruan. Inpeziotik lagun batzuei deituko eskatzen du eta berehala jasotzen dute.

BAHITUA ASKATU DIGUTE

Orain arte, bahituak besterenak ziren.

Fermin Urizberea, "Ximon", bahitu diguten arte.

Abstraktuan eguneroko istripuetan zaurituak eta hilak erraz hartzen ditugu komunikabidez iristaka bezala belarmietatik bihotzera eta burua sartzen zaingigunean; penaz, noski, baina beste norbaiterena sentitzen dugun gisa. Familiaz, herriaz edo ideiaz gureak suertatzen direnean bakarrik dakigu egieten zauria nolakoa den.

Hondarrin egun hauetan sentitu dugun bezala.

"Ximon" bahitua izan zen bihamunaren goizean goiz etxetik irteerakoan entzun nuen egunsentiko isilean heldua zen gizon batek egunkaria erakurtzen zatorren beste bati boz goraz deika bezala galdeztan:

"Mutila agertu al da?"

"Mutila, doinuaz 'guren mutila' zen.

Alkateak ere pertsonak dira, eta herriaren aukeraz berezituak gainera.

Alfonso Oronoz bezala.

Herriak aukeratu duen lehen agintariak merezi du, beraz, pertsona gisa berez to-

kastzen zailaren gain, karguari dagokion errespetu berezia ere, herriaren zerbitzuan hamaika atsekabeen tximistortza izatea suertatzen den kargua! Kasu honetan gertatu den bezala: Udalak bereak dituen araubidez erabakia hartu duelako, herriko norbaitek eska jaso dio! Udalaren ikuspuntuaren aurkakoak libro dira, noski, bere erakusteko; baina iritsi hauek beste nola-bait adierazi behar dira, eta ez indarkeriaz.

Hara nola, heri guztiak gaitzesi duen bahiketa gaizto baten ondorioz, biziki kondanatzekoa den zerbaite gertatu den.

Gertatu zaigun.

Alkate jauna ere herritarra baita.

Ximon libratu dute gaizkileek, eta lasai-
du da herria.

Alfonso Oronoz bera ere, noski!

Baina bahituak sufritu duena ahaztuko ez zaion bezala, alkateari ere ez zaio irain honen oroitapena berehala itzaliko.

Harena badakigu zer den.

Honena, pena handi bat.

Martin Ugalde

NON DUZUE GAZNA?

Garbi dago gizonaren adimena eta ahalmenak asko eta aberatsak direla, gauza asko egiteko gai, baina garbi dago ere bere beharrak gutxienez bat aseak ez baditu, ez dela inolaz ere gai izango aberastasun horiek helburua eramateko. Eta behar horietako bat jatea dugu.

Urteetan aurrera goazenok eta bi gerra-
ren lekuko izan garenek, beren ondorio go-
seti eta gogorrek, ondo dakigu zein
atzean gelditzen diren erbestera eraman
gintuzten arrazikiak: gizonaren eskubideak
eta geure burujabetza. Gosearen aurrean,
gizonaren pentsamendu, lan eta hizketako
gai guztiak, barkatzen ez digun behar hori
astzera bideratzen bait dira. Bere izatea eta
dohaia hain handiak izanik, halako egoe-
ran azken mailaraino jaisten dira aberasta-
sun eta haunditasun guztiak.

Nahiz eta egoera izugarri horren alderdi
gogorrena ez agertu, erbestean gertatutako
bi gertakizun hauek nolabait azaltzen dute
orduko egoera.

Hondarrinbat gutxi gelditzen ginen er-
bestean eta haien artean Maastri baserriko
Martin. Errefuxiatu asko bezala Landeseta-
ko pinu ebakitzeko lantegi batean ari zen
lanean. Oso lan gogorra, ziotenez. Behin
batean bixita egitera etorri zitzaizun Ziburur-
a, eta, jakina, egoerak behartuak, bixitako
hizketagaita gose eta janaria ziren.

Honela zioen: "Xubeldia, beti ametsetan
niok gure baserriko janarie! Zenbat aldiz
esaten nioken nere arrebari bere eltzera
mahai gaineen uzten zuean: 'Orain ere
potaje zerri hori egin du? Jango nike orain
halako potajea, lodi-lodi, kuxhara tente ja-
rri eta bandera bezala gelditzen zena. Orain
izorrari! Fa hura harraipatzeraz. Esaten ditek
asko janta ez dela lorik egiten. Nik bazkiald
estomakako eta tripako kurrunkarekin, hai-
zia besterik ez, esnatzen eta ezin lo egin,
balioan bueltaka ta bueltaka biobibak be-
zala ibiltzen zer den. Xinistanak."

Nola ez! Halako lan gogorra egin behar
eta!

Beste behin, nere bi anaia eta beste bi
errefuxiatuak ikasi zuten Sempereko baserri

ostatu batean zikiri eta gazta jaten ematen
zifurtzea. Eta nahiz eta asko ibili behar izan,
xuxenean hara abiatu zituzten beren pau-
sua, goseak amorratuak. Atera zieten ko-
kela, zikiri eta patata guzia hustu zuten eta
segidan gazta osoa atera zieten, bakoitzak
behar zuena hartu zezan. Baina gazte haien
gose zuloak ez zituzten bete gazta hark ere
eta oso osoa jan zuten. Zerbitzaria mahaia
jasotzera etorri zenean galdetu zien: "Eta,
non duzue gazta?". Gazteek: "jan egin
dugu". Zerbitzariak, ustez zinkatzen ari zi-
taizkiela: "Bon, bon, utz itzazue zorakeriak
eta ekarri iezaadazue gazta hori". Gazteek
berriro "Egitan esaten dizugu jan dugula".
— "Baina zuek baduzue adimenik?". Gaz-
teek adimenik zuten ez dakigu, baina aple-
titua segurki baietz. Etzeko nagusia atara-
tzeko beldurrez, lasterka itzuli ziren ziren
Ziburura.

Nahiz eta aipatutako gertaera hauek
gosearen alderdi goxoena agertzen duten
bere zailtasun harekin, gosearen alderdi
beltz eta gogorrak aitzitasunak iresten ditu.
Uxa ditzagun behin eta berriro guda eta
honen ondorioak!

Lourdes Zubeldia

AURREKO ATENTATUAK ETA MEHATXUAK

Aurretik mehatxuak eta beste bi atenta-
tu izan zituen Ferminen GANEK, Grupo An-
titerroista Nacional delakoak egi-
nak. Biotan onik atera zen.

1986ko abuztuaren lehen heriotz meha-
txua jaso zuen eskutitz: Hilabete zuela
Espainiatik alde egiteko esaten zioten. Irail-
ean beste eskutitz bat jaso zuen, hau ere

GANEK sinatua, bala bat eta mezu hau
zeuzkalarik: "para que sepas como son las
que te vamos a meter". Handik eginon bat-
zuetarra, hamabi tiro hartu zituen autoak
Fermin barruan zihoala. Bera, ordea, ez zu-
ten ukitu.

1987eko abuztuaren 26an kotxe azpian
gasolina bidai bat eta kable batzuk moto-
rri lotuak jarri zitkielako salatu zuen Do-
nostiako Auzitegiak. Honetan ere GANE

zegoen idatzia kotxearen gainean. Donos-
tiako auzitegiak Auzientzia Nazionalera
pasa zuten arazoa. Honek "Castells aboka-
tuak zioenez" bere horretan utzi zuen au-
zia, egileak zein ziren jakiterik ez zegoela
eta.

1988ko urtarrilaren azkenetan Ferminen
mehatxu berriak jasoko ditu, berari eta bes-
te hiru laguni bidaliak.

ERRETEGI BAT BENTAN

Estadistikek diotenez Euskadin 1.000 biztanleko jatetxe bat omen dago, baina Hondarrribian hiru bider gehiago ditugu, oker ez banago Euskal Herrian bigarrenak gara, biztanlegoaren arabera jatetxerik gehien dituen herria Getaria bait da.

Hala ere oso gutxi dira itsasora edo Bidasoara begiratzen dutenak, Arraunlari, Puntal, Kepa (honek nahiko zeharka), Faro eta Etxetxiki bakarrik.

Nire ustez tiro batez bi txori hil litezke, Bentako zelaian erretegi bat jarrita, bertan egiteko asmoa duten birmoldaketaz aprobetxatuz.

Itsasertzeko beste herrietan, mugaz alde bateko nahiz besteakotan hain ugariak diren erretegi hauetako baten beharrik agusten dut Hondarrribian, luxu haundirik gabekoa, ibai eta portuko joan-etorriek begira, estali litezkeen terraza haundi eta txukun batzuk eta jateko arain erreka bakarrik, garaian garaikoa eta ahal baldin bada lenhentxoago Bentan subahatutakoa. Bertan besteak beste honako arrain hauek emango lirateke: Arrosela, berdelak, txitarroa, antxoak (haundiak izugarri goxoak gelditzen dira xardinak bezala erretak), hegialuzea, hegalmotxa, legatza, txipiariak, saltomikoa, barbarinak etab.

Honelako erretegi bat nork jarri behar lukeen? nik ez dakit, baina garai batean "La Muela" izeneko taberna Udalak jarri zuen eta oraindik gogoan ditut azken urteetan eraman zuen Josefa ospetsuak nolako entsaladilla goxoak jartzen zituen.

Orain dela urte mordo bat Kofradiak ere taberna bat jarri zuen bere etxean "Hermandadea" eta Joxepak bere patata-tortilak, txipiariak eta oilasko errekin fama izugarria hartu zuen, ondoren bere alabek, gaurregun duen mailara igotzea lortu dute. Horregatik ikus dezakegu gure Arrantza-

leen Erakunde honek lehen ere jatetxeak jarri dituela.

Nik aipatzen dudan erretegi hau pribatua ere izan liteke.

Edozeinek jartzen duela ere, leku egoki bat jartzen badu, hiri honen erakargarritasuna gehitu egingo du eta ez bakarrik turismoa eta komertzioaretat, ostalaritzaren zatia ere mesedegarri izango da, honelako negozioak elkarren lagungarri izaten bait dira, hortxe daukagu Getariako kasua, atetik atera erretegi bat.

Juan Jose Lapitz

HONDARRIBIKO KANPOSANTUA (I)

(Datuok Florentino Porturen *FUENTE-RRABIA, notas históricas y curiosidades hasta 1969* liburutik hartuak dira.)

Hondarribiko lehen kanposantua, Eliza Nagusian zegoen, parrokian.

Bertan hiru toki zeuden hilak lurperatzeko:

"ZIMINTERIO DE ARRIBA" zeritzona, Bretxa ondoan.

"ZIMINTERIO DE ABAJO", gaurko Bika-rioren txokoan zegoena, eta "INTERRO-RIOAK ETA TONBAK" zirelakoak, eliz barruan.

Eliz barruko zoruari harlosa karratuak zeuden, bakoitza bere zenbakiarekin, hilibien gainean. Batzuk partikularak ziren, beste batzuk elizarenak, hauekin hilibirik ez zutenak lurperatzen zirelarik, eta beste banaka batzuk kanpotarrak lurperatzeko zeuden.

Izurriteak eta gaizotasun kutsagarriak zeudenan, Maria Madalenaren Basilikan lurperatzen ziren hilak, Portuan.

Lurperatzeko eta gorpuak batetik bestera eramateko baimena Udalak ematen zuen, Patroi "merelego" bait zen.

1597. urtean Diego de Porras alferreza hil zen Santelmoko ermitan eta haren gor-

pua hirira eraman zuten parrokian hilibiratzeko, baina Juan Velazquez jaunak ez zuen utzi gorpua hirian sartzen eta Maria Madalenaren ermitan lurperatu behar izan zuten. Hurrengo urtean haren alargunak, Juliana Fernández andreak, Diegoren anaia zegoen hilibi berean lurperatu asmoz, gorpua parrokia eramateko baimena eskatu zuen. Udalak, ordea, baimena ukatu zion, Madalenaren ermitan, izurrit, pesteak kutsatuta alegia, hil zelako lurperatu zutela esanez, eta ermita hartan hilibiratzaren ziren gorpuek desegiteko zazpi urte behar zituz-



tenez, urte haiek oraindik igaro gabe zeuden delarik, ez zela komeni parrokia eramatea.

1760. urtean parrokian obrak eginda, hilibietako harlosak kendu eta kanpoko hilerrietan pilatu zituzten. Egurrezko zoria jarri zuten elizan.

Urte bereko martxoaren 23an, Udaltzeko ataria hilibietako harlosekin konpotzea erabaki zuen Udalak.

Hiritarrek harlosa haiek Kale Nagusia konpontzeko ere erabili nahi izan zituzten, baina Udalak ez zien utzi. Hala ere elizako ataritik San Jeronimoren kaplaraino (Bretxa atean) jartzen utzi zuen.

Handik urtebetera, Hospitalako sukaldetxo zoria eta sarrera egoera txarrean zeudela jakinik, biak, gelditzen ziren harlosekin konpontzea agindu zuen alkateak.

1809. urtean, Erregeren dekretu batek (orduan frantsesek agintzen zuten Espainian) elizetan hilibiratzeko debekatu zuen.

Urte bereko urriaren 10ean, Plazako komandanteak dekretua behar bezala konplizteko agindua jaso zuen Gipuzkoako Gobernadore frantsesaren aldetik, eta alkatetik eta erretoreari, hurrengo hilairen 15erako kanposantu berria bukatua ez bazegoen, preso hartu eta Donostiara eramango zituztela jakin arazi zitzaizen.

Udalak, Errege Agindua Betetzeko egoiena zeritzon lurra aukeratu zuen, kaputxi-
noen komentuarien aurrean.

(jarraituko du).

Sorkunde

HONDARRIBIKO ALABEGANDIK IDAROKITAKO KANTAK

Mende honen hasieran lau Diputazioen artean euskal kanten bilketazko saria antolatzen zuten. Doinu eta letraz mila eta bat aurkeztu zituen R.M. Azkueri eman zitzaion lehen saria eta Aita Donostiaren bildumari aipamen berezia. Handik laster argitaratu zuen Azkuek **Cancionero popular vasco** izenburuz gure herri literaturaren aberasgarri zetorren kanta bilduma, jeneroz sailkatu-rik.

Horien artean bada amodiozko kanta polit bat Hondarribiko alabegandik idarokia. Ez dakigu bere egilear nor zen, baina zalantzarik gabe esan dezakegu marinel maiteminduren batek eginga zela, hemendik Zumairaino zabaldu zenez.

Lehendabizi hemen Zenon Ayestara-
ngandik jasoa adieraziko dugu. Hara he-
men bere doinuak:

Hondarribia herri txikia,
barruan plaza zabala,
alargun batek bai omen ditu
ederrak hiru alaba.
Zun eta zun, Isabel, Manuela,
Margarita zun eta zun eta zun,
pelo largo ta zun.

Hondarribian Ayestaran zen horri jasoa Zumaiar Franziska Erkizagandik ahoz-
jasoaren aldaeratsat ematen du azkuek eta
hala dirudi. Gainera, Zumaiar bilduak hiru
bertso ditu eta Hondarribian bertan jasoa
bat baizik ez. Lehen bertsoan nabari den
desberdintasunik nabarmenena, doinuare-
naz gainera, azken lerroko "pelo largo ta
zun", zumaiararenean "Peru larga ta jun"
dela. Argi erakusten duelarik nahi eta ezi-
naren amorioak eraginiko kanta zela, ondo-
ko bertsoetan ikusiko dugunez.

Okinaren alabak zirela aditzera emango
digu eta kortesiak egin zion eskaria pobrea
izateagatik ukatzeas ogi berotan kaudala
jateko aukera galdu zuen maitemindu giza-
rajoak. Hara hemen bere doinua eta gaine-
rakoa beste bi bertsoak, zun-zun edo zon-
zun errepika kendurik:

Hondarribia herri txikia,
erdian plaza zabala,
alargun batek hor omen dauzka
ederrak hiru alaba.
Zon, zon, zon, Isabela, Manuela,
Margarita zon eta zon eta zun,
Peru larga ta jun,
Peru larga ta jun.
Kortesiakin eskatu nion
bat eman behar zidala.
Errespuesta aditu nuan
"mutil pobrea nintzala".
Zon, zon, zon...

Mutil pobrea banintzan ere
zu okin baten alaba,
ogi berotan jango genduan
zurekin neure kaudala.
Zon, zon, zon,...



Azkueren kantategi horretan, alderan-
tzi, ogibidezkoen edo ofiziozkoen saillean
datozen Hondarribiko dendaria dator.
Dendarik nonbait ez zuen izan okinaren
alabak aukerarik. Dirua bai, baina senargai-
rik ez. Hara kottaduari egin zitoten kanta:

Dendari bat bada gure auzoan,
irabazten baitu ofizioan:

bere orratzez, bere hariez irabazten
du;
bada diru, boltsa badu, aberats da;
senar on bat baizik horrek ezta falta.

Hor ba, zein gaizki banatua den mundu-
ko ondasuna. Hala erakusten bai digute
Hondarribiko kantok.

Juan San Martin



OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Azaroak 28 - Abenduak 4: Erauskin
Abenduak: 5 - 11: Mayi;
12 - 18: Iraola
19 - 25: Erauskin

Mayi, Alm. Alonso Kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

Abenduak: 4: Martinez
5: Arratibel
6: Garmendia
11: Martinez
18: Arratibel

Arratibel, Zubietza Kalean - 641975
Garmendia, Santiago Kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusian - 641212

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:
Arratsaldeko betan Portuan (inaurrentzat)
7,30etan Portuan

IGANDEETAN:
Goizeko 8,30etan Betherranean
9etan Amuten
9,30etan Guadalupe
11etan Portuan

PABLO ETXEBESTE

Blagan

HA: Hasteko, zu noiz ta non jaio zinen?

PE: 30ean, 19an, eneroan, Santiago Kaleko oraindik bizi naizen etxe hortan. Ni bigarrenia nintzen, lemixikoa hil zen, ta oraindik gero beste labak. Ama ere bizi da miñon 9 urtekin atxa hil zigun.

HA: Beti bizi zere etxe berean?

PE: Bai, beti etxe hortan. Ni behintzat bai, ze etxe honek battu 70 urte ta nik ez dut hainbesterik.

HA: Garai hartako giroa txol ezberdina izango zen...

PE: Bai, hemen lehen beti miseria haundia den arantzaletan artean. Hemen Barriotxino orain aldean pobrea bizin zen jendea; denetan ematen zen arantzalekeri balekin, zera, dirunik ez ta bale batzukin, gero udan pagatzeko, laguntza bat arantzalekeri, janariak eta. Gure atak mixiko andreakeri hori egin zuen, zera, lagundu arantzalekeri, miseria haundia!

HA: Txikitzen ze ibiltzen zinezten, beti hemen barrena?

PE: Bai, hemen barrena. Kaiatik igienika ta gero gerra denboran mendira ebastera, fruta ebastera, zerbaite jateko... baserrian, ta basermitik plaiara, itzean problemik eman babe, gu beti gure martzan, ez zen etxian deusere puz halar, plaiatik mendira, menditik plaiara, ta horrela etzen gosarik.

HA: Eta Barriotxino kontuak?

PE: Denak ezagutzen ginen elkarrekin, lehen gazteek eliten zuten beti jostatzen, 20 urte arte etzen tabernik eta, ez zigarronik ta deusere. Pike asko zen barriokeh artean, gu barriotxino, ta txangai beti joka, jaleo gogorra, kaletarrak eta... Gosea bazen miñon baguenen jostatzeko umorea, udan baserria fan, orduan fruta asko zen, orain eztena, ta tira aurrera, ta gero beti igienika egun ta gau. Xanti ta Apolino Goikoetxea ta, hoiak ziren hemengo jefiak.

HA: Ta Barriotxino nolakoa zen?

PE: Labadero zaharren bitzen ginen denak, kaxota bat egiña genuen labaderuan, kanito earra! Denbora batean hau dena ura zen, ta benta omen zen labaderon aurreko ibexan. Beti ari gero itsasor itzasoari terreno kentzen, azkenean benta Hendaiara jarriko dute...

Gure barriotxino istorioak... orain ezta holakorik. Beti ebatsi jateko gauzak, ta gero denak juntuat elkarrekin jateko. Lehen jendeak eliten zuen fruta ebatsi ta hola, miñon ez zuen holako maldadetan, gauro animalikeriak...

HA: Eta serbizioa Madriden egin zuen...

PE: Bai, 21 hilabete, 24 ein behar ziren, miñon Frankok ein zigun guri kendo. 3 hilabete Ferrolen ta gero Madridera, ta gustora! Nahiko dirukin ta osasun earra! Oso ondo! Ta bi negutan etxera dirua bidaili, ta gero berriz itsasora...



Hamabost urteetan hasi nintzen, nahiko goiz! bueno, baziren batzuk faki zirela hamalau urteetan; Batelean ibiltzen nintzen lehenotik txipiroitan. Eskola 12 urtekin laja, ta gero 13 urte arte batelean txipiroitan ta hola ibiltzen ginen. Orduan etzen orain bezela, barko gutxi ta jende asko. Orain bada jendea, miñon egundu zen denbora bat barko zela ta jenderik ez, gerrako buelta horretan, bai, gazteria asko hil zen ta orduan barkoak baziren ta jenderik ez, ta orduan baserriarrek ta etorri ziren Hondarribira, kampotik ta, ez zela jenderik, orain atzean gazteria bada, heldu da gazteria, Hondarribian gazteria kuidatu ein behar da, ein hehar leike, zertik gazteriak badu gogua, ta hau... ez bada laguntzen hokeri ondatu eingo dire, pena bat izango leike... gasteria horrer e laguntzea.

HA: Eta hemen zer zegoen, legatza?

PE: Ez, legatza hasi zen 58n, bai ni orduan... 57n Dakarrera fan ta 58n hasiko zen legatza hemen, ia marxta legera, lehen beti atzematen zen, zaharrek ere atzemango zuten!, ibiltzen ziren haiek Eskotan eta, miñon legera hemen legatza hasi zen 58an.

HA: Eta zertan ibiltzen zinezten?

PE: Neguan pues txipiroitan, oaindik txipiroi gehiago zen, beste batzuk arai tikitari, denetara ibiltzen zen, lapatan ere bai.

HA: Eta udan?

PE: Udan atuna. Atuna asko atzematen zen, antxoia asko zen miñon antxoak ez zuen balio, atunan esperantzan... Antxoakin lau aste, ta etzen balio ia. Maltzakoz hasitzen zen atunetan, aste haundiena San Isidrona, orain San Isidrotan da ta atuna atzematen ere, orain San Pedro igarota hasitzen da, ta orain bukaieran gehiago...

HA: Eta barkoak txarragoak izango ziren...

PE: Barko txarrak! Oan gero ta barko ederragoak dire, etzen kamañik ere! Oain exijentzia gehiago lehorrean ere, ta gaz-

teentzat gauzak ondo ein behar dire.

HA: Zu patro bezela urte asko emaki dituzu...

PE: 53a ezkerotzik, lemixi "Blankitan", gero "Mari - paz", ta gero honekin "Monte-san-juan", 25 urte, ta bestekin beste 10,35 urte emaki ttut. Zaharrenetiko naiz, bigarrena edo, zaharrena Apolino Goikoetxea izango da.

Arantzalekentalat gauzak eliten dire hobetiko, lehen arrai asko zen ta etzen pagatzun, frantses zernikeri hoiak ezpadigute guri izorratzen, jende txarra da! Bajuran lan ein behar da, ordu asko, ta hoiak nahi dute barko bete ta egunero etxera etomi. Ta hemengo gazteria jartzen ari da, barko onak dire, sosa irabazten dute, ta lehorrean lan aukerarik ez...

Izandu zen denbora bat 55-60an epoka hortan, ta nola lan asko zen lehorrean fabriketan, ta arantzale asko fan ziren lehorrean lanera, gero batzuek berriz itsasora, miñon lehorrean beti hobetiko ordu gutxigo, itza soan egunak luze, luze... Gazteek esan behar dute ze nahi duten, guria fan da ta eudek ein behar dute, guk lagundu miñon eudek egindu behar... Gu gure atfonak miñon hobetiko bizi ketu gera, ta oango gazteek ez dituzte gure goseak igaroko, mundu hola faki da.

HA: Oraindik lanean zaude?

PE: Bai, beste urtebetekoz, 45ean hasi nintzen. Lehen osasuna zuenak segitzen zuen zertik etzen retiro ta deusere, retrirona hasi zen 60an aldain. Barko asko zahar bat erretiratzan zenean eliten zuten parte erdia eman, puxkat laguntzeko. Askok majoratu da. Aparatua ezta ona itsasoran, arrai ezta garbitu behar.

HA: Eta hemengo gazteek kanpora fan beharko dute lanera?

PE: Hemengo gaztea ezta hemendik mugituko, zertik hau bezelako herririk ezta munduan; hemen izango dute ogia jateko,

ta munduan ezta hau bezelako lekunik.

HA: Garai batean arrantzale asko lparalde aldera jo zuten...

PE: Bai, ta arrantzale onak ere izan, miñon diru ondo irabazi ta semeak itsasora fan nahi ez, gazteak lehorrean gelditu, ta oain egin da dena galdu, ta jende txarra nagusitu da arte txarrakin arraia atzeman, ta hori ezin da.

HA: Eta hemen Hondarribian, arrantzaleen artean ez da bertsolaririk izan?

PE: Hemen bertsolariak edatean, miñon bertsolaririk ez hemen Hondarribian. Beste tokitik aterako dire!

HA: Eta kofradian noizpait karguren bat izandu zera?

PE: Kargu ez, zera "Alcalde del Mar", bi "Alcalde del Mar" ziren ta aba nagusia, ta hiru aba tiki, ta aba nagusia minez bazen, ba haren partez...

HA: Eta tropen ere ibili izandu zera?

PE: Hermandade zaharreko tropa ari zen gailzen, ein zuten obligatu patroir guztiekeri fatea, ta oan gero ta gutxiago faki dire, ta espada egiten berriz, obligatu, be-miro galduko da. Ni faki naiz teniente. Lehen alardea oso diferentia zen, gehiena 2 edo 3 txubilitu, ta 80 eskopeta, ta orain aldrebes; miñon mutli tikiiekeri ezin da kendo ilusioa, hola kalderokin fatea. Nere lana tropen hori da, mutli tiki hoiiekeri pixkat kuditatu. Guk, zaharrek ezugu modorikan fateko edan babe! Egun horrekin behar da alegia. Alardea duk fiesta bat, eta batzuketatzat duk prozesio bat.

HA: Hondarribian ezkonduko zinen?

PE: Bai, hemen, bertako baserriar batekin, 60an, abenduaren 3an, ta gero 5 seme-alaba, gosea ez dute igaro, dirurik ez miñon...Orain bat eskondutako.

HA: Baduzu hola, tikiitako lagun aipagarriak bat?

PE: Norbait esateko, nola hil zen eta, Xanti Goikoetxea, gizon ta arrantzale listoa



zen, batzuek eroa daitzen zioten miñon inundi etzuen horrelakorik, ta gainera gizon ona.

HA: Eta nola ikusten dituzu trainerako kontutak?

PE: Nere idurikoz hemen izandu da patroian falta. Lehen Hondarribian ibiltzen ziren elkar joka, ta denak juntatu zirenean orduan hasi zen banderak irabazten; gero Lujanbiokin ta, etzen arrantzalekin. Arrantzaleak ezin du Agostoa entrenatu.

HA: Eta Pedreñakoekin desafio hura...

PE: Hori zen 45ean. Orduan Pedreña zen onena Kantrabikon. Igara zen Donosti-ko estropada zela hila 8an, ta ondarbita- grek nahi zuten kanbiatu, nola etzuten kanbiatu, Hondarribia etzen fan. Ta hemengo fiestetan ein zuten desafioa Hondarribian, ta Hondarribiak irabazi. Nik ez dut ikusi sekulan hainbeste jendea Hondarribian. Behar da patroia gaztea ta gaxtoa, hau herri earra da, ta udan... neska gazte asko, ta taberna asko...

HA: Beste anekdota bat oiritarazteko, apaizen batek ez zuen hemen egin zer bait megafonoekin eta...

PE: Bai, padre Langanika, bizkaitarra, harek ein zuen herriko jende guztia kanbiatu, harek elten zittuen nobenak. Herri guztia montsomantso jarri zen, harek abildade gogorra zuen. Oain etorko bazen hura bezelako gizon bat, harekin botako zuten, harekin garbitu ta aita boza denak txetu...

HA: Eta bukatzeko, nola ikusten duzu etorkizuna?

PE: Itxeak erosteko problema! Hemen gazteak problema haundia dute horrekin, kanpoko jende bailara etorri da... nik ez dakit diru beltza edo gorriko... Ta bertakoe- zat gaizki ikusten dut nik asuntu, problema txol, txol gogorra da. Arrantzaleen artean ere... Erdiak ondo irabazten du, miñon beste erdiak jateko hainbeste...Ta Hondarribia herri garestia da, gure denboratutik honara gauza asko kanbiatu dire ta beste 30 urte- tan ere, kanbiatuko dire gehiago.

Iñigo Etxebeste

"HITZETZ HITZ" LEHIAKETA (3)

Bigarren aldian aurrekoan baino asma- tzaile gehiago izan ditugu: Alaitz Agirre, Marga Aristizabal, Iraitz Arruabarrena eta Lierni Mendizabal. Hona hemen batz- beste eman ditziguten azalpenak eta adibi- deak:

1) MOTXOKARA.

Multzo, talde, pilo, mordoxka. "Atun motxokara", "txipiroi motxokara". Motxokara pollita erori ziok loterian.

2) ALATEKO (...).

Mespretxua adierazteko izen laguna. Arraioa, alena. "Txoroxa, añateko txo- roal", "Alateko zakila hil", "Alateko zirtzi- la!", "Alateko alferria".

3) INPROMATU.

Izorratu, fastidiatu. Ederki inpromatu!", "Gaxki atera zaik hori; inpromari!" "Hau inpromatza! esnia egosten jarri, ta gotti fan!

4) ANGUXATU.

a) Zerbaiten irrikaz edo gutiziaz larri egon.

b) Gustoko den zerbaitez alsegin han- dia sentitzea.

"Eltzekari hau jateko anguxatua nago", "anguxa-anguxa ei la dago, girila dano- la".

5) BALTZ EGIN.

Zerbait zenbaiten artean banatu. Zerbait aurkitutakoan, adibidez, "Biyak (hiru- rak...) baltz" esan ohi da.

"Mila pezeta aurkitu eta baltz egin" "Txikitotan hartu tjugun diruak denoken

artian baltz egin tjugu".

Norbait azalpen edo adibide hauekin konforme ez balego bidali ditzala bere oha- rrak aldizkaria eta pozik argitaratuko ditu- gu hurrengo batean.

Hona hila bete honetan eskaintzen ditu- gun hitzak:

1) "bufara". 2) "bixinua". 3) "bixkurria". 4) "fuya-fuya". 5) "ingria".

Erantzunak balditzeko epea datorren abenduaren 10ean bukatuko da.

Helbidea, betikoa duzue:

"HONDARRIBIA" aldizkaria
"Hitzet hitz" lehiaketa
Euskara Kontsailua
Udaletxea
20280 - Hondarribia

Esan bezala, asmatzaileen arteko lehen zozketa urtarrilean izango da.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI KANPORAKETA

Hasia dago dagoeneko Euskal herriko Bertsolari Txapelketarako Gipuzkoako kanporaketa aldia. Gipuzkoako kanporaketa honetarako berrogei bertsolarik eman dute izena eta zortziko taldeak eginik hamar herriaren ariko dira: Lazkao, Hondarrribia, Bilibonan, Ormaiztegin, Zumai, Urnietan, Lizartzan, Antzuolan, Elgoibarren eta Errenterian. Kanporaketak azaroaren 5etik abenduaren 3ra arte iraungo du. Abenduaren 11an jaialdi berezi bat egingo da Ordizian kanporaketako lehen zortzi bertsolariek parte hartuko dutelarik.

Azaroaren 5ean Lazkao eta hurrengo egunean, azaroaren 6an Hondarrribian, hamasei bertsolari aritu ziren. Zortzi herri baita.

Epai mahaia osatzen dutenak eta kanporaketa saio guztietan horretan arituko direnak hauetxe dira: Pabito Goikolea, Jose Mari Arrieta, Joxe Mari Gabiria, Joxerra Gartzia, Jesus Mar Etxezarreta eta Rufino Iraola, Arantxa Arruti eta Pello Esnal idazkari direlarik. Hondarrribian, Joxe Kruz Ezeiza "Kaxka" izan zen gai jartzaile.

Hondarribiko saioan parte hartu zuten bertsolariak Jesus Lopetegui, Antton Etxaniz, Joxe Manuel Oiarzabal, Juanito Lolola, Joxe Mari Mujika "Anatx", Koldo Alberdi "Egileor II", Loidisaletxe II, eta Arantzazu Loidi izan ziren.

Puntuaketa sartu baino lehen bertsolarien agurrak izan ziren. Lehenak, Lopetegui, Ferminen desagerteka aipatuz ekin zion sailari:

Egunon, jaunak, Hondarrribian giroa doa petraitzen; Fermin falta da egun hauetan eta etzaigu azaltzen. Bere omenez saiaiko gora gure kemenak ugaltzen, Tripakominak ez bagaituzte Urgenciamera bidaltzen.

Azken bertsolariak, berriz, Arantxa Loidi, Bordari goraiatu zuen agurrean:



Epaimahaikoak lanean.



Joxe Mari Mujika "Anatx" eta Loidisaletxe II bertsolari.

Gure herak eman dizkigu makina bat olerkari.

Haien artean aipatu nahi dut gaurko honetan Bordari.

Harek kantatzen zion moduan herri arrantzaleari

nik gaurko hontan kanta nahi diot bere herri maiteari.

Lehenik egin beharreko lana ofiziotara zortziko nagusian hiruna bertso botatzea izan zen. Zeregin honetan Loidisaletxek lortu zuen punturik gehienak, 114, eta Arantxa Loidi gelditu zen bigarren 113 punturekin.

Hurrengo zeregina koplaka binaka gai bati buruz seina koplak botatzea izan zen. Honetan ere Loidisaletxe ilak lortu zuen puntu gehienak: 135,5. Jesus Mari Mujika "Anatx"-ek gelditu zen bigarren 120,5 punturekin.

Burutu behar izan zuten hirugarren zeregina zortziko txikian hiruna bertso botatzearena izan zen. Honetan, Jesus Mari Mujika "Anatx"-ek lortu zituen puntu gehienak: 114. Loidisaletxe bigarrena gelditu zen 109,5 punturekin.

Azken zeregina kartxelako lana izan zen. Lehendabizi, puntu bati erantzun behar zioten zortziko txikian bertsoa osatuz eta, bigarren, nahi zuten doinu eta neurriko hiru bertso bota gai jakin bati buruz. Honetan ere Loidisaletxe ilak lortu zuen puntuaziorik altuena, jaialdi osoan eta orain arteko bi kanporaketan lortu den puntuaziorik altuena lortuz gainera: 164,5 puntu. Bigarrena, Jose Mari Mujika "Anatx" gelditu zen.

Hona hemen Joxe Kruz Ezeizak puntua emanda Loidisaletxek osatu zuen bertsoa:

~Hondarrbin ezin da

erosi pisurik...

~Herri eztiot egin

aspaldi kasunik,

Itxe ondo pintauak,

beltzak eta zurik,

Baina oso garesti

ez al daude honik?

Ordoren hiru bertso kantatzeko gaia eman zitzaion: "Pezeta bat zaitugu. Nola tratatzen zaituzte?". Eta bertso hauek bota zituen:

Guk badakigu diru kontuak

asko egin duna behera

eta kezkan naiz ikusikan

jende askoren joera.

Hautxoak ere eskuan hartu

eta bota hankapera.

Martxa honetan berihalexe

nola intsioko gera?

nola intsioko gera?

Nahiz ta dirua gure etxera

errezegi ez dan sartzen

orain ari da jendea danai

kaso eitera behartzen.

Baina pezeta hala ta guztiz

ere bate ez da indartzen,

gaur egunian inortxok ere

haintzakotzat ez nau hartzen

haintzakotzat ez nau hartzen.

Garai batean bat eta beste

eskuetan nitzan pozik,

bainan oraingo hontan hain bera

botea naukate kasik,

ezet egiten len egiten nuri

aldaketa ta jolasik.

Pezetak bate ez du ballo

milioietan izan ezik

milioietan izan ezik.

Epaimahaiko sei ideak bat etorri ziren Loidisaletxe II lehen postuan sailkatutik, sei punturekin. Bigarren, Jose Mari Mujika, "Anatx" gelditu zen 14 punturekin, Jesus Lopetegui hirugarren 21 punturekin, laugarren Arantxa Loidi 23 punturekin, bosgarren postuan enpate bat izan zen 32na punturekin Koldo Alberdi, "Egileor II" eta Juanito Lololaren artean. Zazpigarren Joxe Manuel Oiarzabal gelditu zen 39 punturekin, eta zortzigarren Antxon Etxaniz 48 punturekin.

ESKOLAZ ESKOLA

"AMA GUADALUPEKO" IKASTETXEA

EVERESTERA IGOERA

Euskal espedizioa Everest mendia igozteko asmotan joan da gaur goizez hegazkinez. Lehen Katmandura iritsi dira hegazkinez 48 ordu egin ondoren. Katmandu material guztia erosten dute: denda ezinartina-
goak, ilteak dituzten botak, etab.

Katmandutik, Loboutsera doaz autobu-
sez edo hegazkinez, eta Lobutsen sherpak
aukeratzen dituzte, gero handik Evereste-
rantz oinez abiatu dira. Lehenengo egunak
normaltasun osoz pasatzen dira, bidea
nahiko ona da eta. Sherpekin ez dago pro-
blemarik, beudek prestatzen dute beren ja-
naria, eta gainera ohituak daude bidaia
hauek.

Azkenean elur urteazinetara iristen dira,
eta hor hasten benetako abentura. Itzildun
botak eta motxilak prestatu ondoren abia-
tzen dira. Benetako abentura orain hasten
da, gizona eta bere aurrerapenak, natura-
ren indarren aurka.

Lehenengo egunetan lasai doaz, nahiko
eguraldi ona daukate, eta poliki-poliki lehe-
nengo kanpamentua montatu behar duten
tokira iristen dira, 3400 metrotrata daude
eta hotz asko egiten du. Kanpamentu hon-
tan irratia, janaria eta materialik astunenak
uzten dituzte. Kanpamentuaren ardurari
sherpak batzuk eta euskaldun bat geratzen
dira.

Hurrengo egunean goizean goiz badoaz
lau euskaldun eta 10 sherpa gorantz. 4500
metrotrata iristen direnean sekulako ekaitza
hasten da. Arkaitz batzuen azpian pasatzen
dute arrats guztia. Mugimenduak egin
behar dituzte bestela behatzak jela-lutuko
zaizkie eta.

Ekaitzak tarteka izaten ziren eta ater-
peak aiporbetxatuz doaz gorantz. 6800 me-
trotrata iristean bigarren kanpamentua mon-
tatzen dute. Hurrengo goizean aterako dira
gailurrerantz. Goizean goiz sherpak txarra
egingo duela dio, baina hala ere atertzen
dira. Lau ordu oinez egin ondoren ekaitza
hasiko dela ikusten dute, eta kanpamentu-
ra itzuli behar dute.

Hurrengo goizean berriro doaz, eta az-
kenik 12 ordu ibili ondoren Everesteari
gailurrera iristen dira. Ikurrin bat ipintzen
dute. Egun askotako lanaren saria iritsi da.

Jon Anzisar
8. maila

TXINGUDI BADIA

Gure ikastetxea leku ezin hobeago ba-
tean kokatuta dago: etxetik hurbil, Portu er-
dian... Hau bai dela zoria!

Goizero eskolara abiatzen naizenean,
goiko jolas-lekutik gustokoa dut itsasora
begiratzea. Hemen, hain zuzen, Bidasoa
ibaia Kanturi itsasoarekin besarkatzen da,
eta gertaera honen ohorez onez jo du Natu-
rak egin digun opari ederra: Txingudi Ba-
dia.

Gure badia-ri so egoteak, lasaitasunez
eta atseginaz betetzen gaitu.

Paisaia beti berdin-beti ezberdin.

Hendaia beste aldean. Larun, Aiako ha-
rriak eta beste mendiak... eta erdi-erdian
ura eta itsas-ontziak. Hau dena argi bate-
tan bilduta, argi zoragarri eta ugar badia...
Pakea eta baretasuna. Argi-itzalak...

Haizea, itsas-haize leun eta xanoa.

Gehienetan, bai presarengatik, bai egu-
neroko kezkengatik, aurrean daukadan pai-
saiaz ez naiz ohartzen.

Eta nere inguruak eskaintzen didanare-
kin zorretan gelditzen naizela sentitzen dut.
Orduan, zor hau "ordaintzeko" ptreilean
eseritzen naiz eta hantxe gelditzen naiz...
isiltasunean... inguru eder hau bizi-
tzen.

Eskolaurrekoak

HAUR PLURIENPLEGUA

Jakina da gizarte kontsumatzaile bate-
tan bizi gerala.

Gehiengoak, erostean, dirua gasta-
tzean, kontsumitzean oinarritzen du zorio-
tasuna.

Hautentzat lan egitea eta dirua irabaztea
ezinbestekoa bihurtzen zaigu. Eskuetara
datorrigun diru gutxia gutxi da, gastatzeko
aukerak tentagarriak eta mugagabeak balt
dira.

Ondorioz helduengan plurienpleguaren
beharra sortzen da.

Haurrekin antzeko zerbait gertatzen da.

Eguneroko O.H.O.ko ikasketak bukatu
ondoren, beste aktibitate "osagarri" batzuei
ekitea ohitura bihurtu da; eta hona hemen
egoera honetara arrazoi batzuk:

a- Gaur eguneko gizarte kompetitibo
honek prestakuntza bikaina exijitzen du.

b- Kalea ariskugarria da. Eta modu
honetan haurrak leku jakin batetan daude.

d- Lan egiten duten gurasoen arazoa:
denbora-eza beraien seme-alabekin egote-
ko.

Gutxi gora behera hau da egoera, irten-
bide azkar bat behar duen egoera (ilusio
gabeko haurrak sortzen ari gara). Haurrak
jolastean ibiltzea behar du, Jokuarren bidez
bere ahalmen eta potentzialtasunak gara-
tzen bait ditu.

Hau dela eta, gure ahalagin guziki
joku-aukerak, jolas-lekuak, e.a., sortzera
zuzendu beharko genituzke; bide honetan,
Udala, Administrazioa eta beste edozein in-
plikatur. Honela, denon artean gizarte go-
zagari, ludikoa eta lagunkide bat lortuko
dugu.

Ezin ahaztu, haurtzaro zoriotsu batek
heldutasun orekatsua eta ase bat dakarkiola.

Erdi ziklokoak



ARRANTZA

BUKATU DA KOSTERA

Bukatua dugu jadanik atunaren kostera, eta aski emaitza onekin gainera. Esan dezakegu azken hilabeteen salbata dela kostera, hasiera oso kaskarra izan bait zen; esan nahi baita gure itsasontziak sare pelagikoak direlaoren erabilerak trabatu eta eragotzen ziela atuna hatzematea.

Hegalmotzari dagokionez, joan den urtean baino 100.000 kilo gehiago harrapatu dira, aurtengo azken kopurua 1.300.000

kilo izan delarik. Bestalde, hegalezuei gagozkiela ere 1.987ko kanpainan baino kasik 200.000 kilo gehiago sartu da, orotara aurtengo kostera 2.000.000 kilo izan direlarik. Nolanahi ere, honek ez du esan nahi sare pelagikoaren afara ahanztzia dugunik edota jadanik horrelakorik ez dugunik. Normahik dakienez arrantza modu hauekin jarraituz gero ez dugu oso luzarorako etekinik izango.

Hasiak dira dagoeneko untzien txukunketa eta konponteka lanak heldu den ekitaldirako prest egon daitezen, hots, legatz zein antxoak kanpainetarako.

Hegaluzea, aldiz, beste itsasbatarantz

abiaturako zaigu, haren sorburu den Mexikoko golkoaraino, bere emaitza zikloa burutu ahal izateko eta heldu den urtean gure porzerako ikustaldi berria egin diezaiogun, baldin eta bestelako baldintzak eragotzen ez badute.

Bestalde, orain arte belar bilketan aritu diren untziek haien berezko arrantza moduari ekitea erabaki dute, kainabera bidezkoari, alegia. Itsasontzi gutxi hasi da oraindik eta, hortaz, denboratxo bat itxoin beharko dugu legatz arrantzari buruzko datu zehatzik emateko.


Andres.

GOROTZA EDO SIMAURRA

Azken artikuluxkan garai batean eta baita gaur egun ere daukan garrantziaz mintzatzen nintzen, gaur berriz, iratzetik eta beste edozein inaurkintetik ateratzen den ondorioetaz xertxobait esaten saiatuko naiz. Gisa hontan, "gorotza", orbel, iratze edo garoa eta beste zenahi inaurkinekin eta ganaduen kakez nahasiz usteltzen den zer bait da. Zabalteko edo edatzeko gararik egokiena udazkena dela diote halabaina urteko edozein arotan simaurtu daiteke soa eso alorra.

Esan nezake lurrari gorotza botatzeak, gutxienez, bi egiteko dituela: alde batetik lurra hobetu egiten du. Horrela, simaurtutako lurrak urari gehiago eusten dio, eta ondorioz, lurrak luzeago irausten du heze. Gainera, buztin lurrak askatu egiten ditu eta ondar lurrak itxi, landarearentzako egokia gelinez. Bestalde, gorotzak, mineralak ere sartzen ditu lurrera, batez ere nitrogenoa eta mikroelementuak eta landare medede egiten dieten mikroorganismoak.

Era hontan, baratzeako landarenik gehienak eta belar-soroak ondo irakindako gorotza behar dute. Gorotz berria, hau da, ira-



Hara nola egin behar diren simaur pilak.

kien gabea zabalitzen bada —eta gure artean askok egiten du hori—, belar txar guztiak ereitea hainaxeakoa da eta gainera gaitzak zabalitzen dira. Baita ere, baserritar asko da, batzutan toki ezeean eta bestetan ez jakinean, gorotz pila ikuluko atarian eta soro bazterretan egiten duena; denbora luze eurlitan eta eguzkitan edukiz, batere estali gabe, eta modu horretan gorotzak bere nitrogenorik gehienak galdu egiten ditu, ez bait du pila guztiak berdin irakiten.

Zenbat kantitate bota jakiteak ez du kalerik ekartzen, nahiz nahiz eta gutako gehienek, sekulan nahiko zabalitzen ez duen ustea eduki. Horrela, ondorengo puntuak eduki beharko genituzke gogoan: lurra nolako egoeratan dagoen (analisi batekin ikus daiteke hori), zein hazi edo landare jarri nahi den, aurretik zer egon den lur horretan eta ondoren zer jarriko den, etab...kontutan edukitzeakoa da ere gorotz mota guztiak ez direla berdinak. Ziur aski, gure artean behi gorotza da gehiena erabiltzen dena eta beraz onenetakoa dela kontsidera daiteke. Irakiten denbora dextente behar du —ortxi bat hilabete—, baina gero asko irausten du eta oso ona da lurra sendotzeko. Zaldi-gorotza, gerota zailagoa da simaur klase hau aurkitzen, gainera garestia delarik, horregatik hazitegietan bakarrik erabiltzen da normalki. Txerri eta ardi gorotza arunt ezberdina da: Txerrien gorotza urtsua eta otza da, baina orbelarekin nahastuta egiten bada simaur onoa ateratzen da. Ardi gotza aldiz, beroa da, eta minerala asko izaten du, horregatik kantidade gutxiago nahikoa izaten da. Lurraren osagarri bezala ez da hain egokia. Olio-zirina indar handikoa da, eta beraz, areako 100-150 kilo zabaldu ohi da, bestela, lurra edo landarea erre egiten bait du. Lurra osatzeko ez da ona. Azkenik pixa oso ongarri ona da zenbait landareentzako, urarekin nahastuta zabaldu behar da eta, ez da erabili behar lurra hobegotzeko.

J. Bereau

Errandonea Zarrekoak iratzea metatzen.

DEMOGRAFIA

JAIOZAK

URRIA

- 1ean: OLAlA Arbelaitz Sarasola
Gurasok: Juan M.^a eta M.^a Concepcion.
- 4ean: MARINA Personat Alvarez
Gurasok: Florentino eta Ana-Esther
- 5ean: JOSEBA MANU Odriozola Mante-rola
Gurasok: Jose M.^a eta Izaskun
- 6an: MARIA Garmendia Amunarriz
Gurasok: Jose Ignacio eta Itziar
- 8an: AITOR Agirrezabala Aristizabal
Gurasok: Lorenzo eta M.^a Carmen
- 9an: INIGO Villanueva Zabala
Gurasok: Miguel Angel eta M.^a Eugenia
- 19an: MARIO Alza Sanchez
Gurasok: Bittor eta Isabel.
- 20an: SENEN Amunarriz Alberto
Gurasok: Senen eta Maria
- 25ean: ENDIKA Olazabal Marin
Gurasok: Jose Luis eta M.^a Concepcion
- 28an: MAIDER Jauregi Sabat
Gurasok: Ignacio-Jesus eta Concepcion

EZKONTZAK

IRAILA

- 3an: Castor Bengoetxea Etxeberria Hondarribikoa eta M.^a Esther De la Iglesia Alvarez.
- 10ean: Pedro Jose Igos Goikoetxea Hondarribikoa eta Ana Lourdes Ares Gorriti Pasaikoa.
- 17an: Luis Fernando Arellano Hualde Lezo-koa eta Izaskun Agirre Urtizberea Hondarribikoa.

URRIA

- 8an: Juan Carlos Ostolaza Rubert Hondarribikoa eta M.^a Teresa Colom Oteiza Irungoa.
- 11ean: Jose Carlos Aginagalde Zapirain Hondarribikoa eta M.^a Begoña Uranga Bravo Irungoa.
- 15ean: Jabier M.^a Txapartegi Oloskoaga Hondarribikoa eta M.^a Luisa Tapia Aparicio Hondarribikoa.
- 15ean: Juan Jose Olasoaga Etxaide Hondarribikoa eta Isabel Garcia Alvaro Irungoa.
- 15ean: Pedro M.^a Lasa Zapirain Lezokoa eta M.^a Guadalupe Lopez Lekuona Hondarribikoa.
- 22an: Jose M.^a Telletxea Alzugarrir Irungoa eta M.^a Carmen Villate Alonso Hondarribikoa.
- 22an: Alfonso Balerdi Ugarte Hondarribikoa eta M.^a Jose Toledo Aranalde Donostiakoa.
- 29an: Jose Manuel Abejon De Grado Donostiakoa eta M.^a Pilar Sunsundegi Loinaz Hondarribikoa.

- 29an: Mamerto Etxaburu Olasoaga Hondarribikoa eta Miren Maitane Kere-jeta Igiñez Hondarribikoa.

AZAROA

- 5ean: Rufino Agirre Amunarriz Hondarribikoa eta M.^a Pilar Bollain Juntoren Hondarribikoa.
- 5ean: Jose Antonio Personat Etxegoien Hondarribikoa eta M.^a Amade Eloi-riaga Aiesta Hondarribikoa.

HERIOTZAK

URRIA

- 16an: Enriqueta Olazola Amunarriz 84 urtekoa
Lur-Gorri, 4 - 4. B
- 16an: Jose M.^a Alza Tife
- 19an: Ramon Diaz Caminaur 78 urtekoa
Kale Nagusia
- 20an: Jose Miguel Alza Telletxea 42 urtekoa
Guadalupoko Arma, 4
- 23an: Emilio Garcia Torrecilla
- 29an: Jose Antonio Errazkin Berroa 50 urtekoa
Haize-Eder, 2 - 2. esk.

AZAROA

- 2an: Victoriano Irastorza Tumas
- 4ean: M.^a Teresa Pereira Aldako 38 urtekoa
- 5ean: Eustaquio Berroteran Sorondo
- 8an: Carmen Terrazas Casca
- 8an: Antonio Alkain Berroteran

UDALA

Azaroaren 5ean Hondarribiko Udale-
txean izan zen Plenoa ez da berehala itza-
liko askoren orimean. Eta oroitapena,
segur aski, ez da inorentzat goxoia izango.
Gogorra izan zen, Pleno gogorrik inoiz izan
bada. Arrazoiak ere halakoa zen: Fermin Ur-
tizberea HBko zinegotzi gaztearen desa-
gertaketa.

Plenoa ordu bata eta hogeitabostean
hasi zen. Pleno gela erabat bete zegoen
jendea eta tensio larria nabari zen giroan.
Ferminen tokian bere argazkia zegoen.

Hasitakoan idazkariak EAJren idazti bat
irakurri zuen; bertan Plenora lehenago delitu
ez izanagatik bere protesta azaltzen zuen
EAJk. Alkateak aurreko arratsalde osoan
zehar, Ferminen desagertetaren berria ja-
kin zen momentutik beretik, harremanetan
egon zela HBko zinegotziekin erantzun
ziona, eta orduan erabaki zutela Plenoa la-
runbaterako ordu batean egitea.

HBko zinegotzi batek EAJren postura
hura teatroa zela esan zuen, Ferminen au-
rreko atentatuaren laguntza eskatu zenean
ukatu egin zutelako, eta, beraz, EAJ ere zi-
kindua zegoela, beste partiduak bezalaxe.

Ondoren HBren mozioa irakurri zuen
idazkariak. Mozioak sarrera bat zuen eta

ondoren bost puntu Plenoak onartzeko
proposatuta.


Sarrerak, Ferminen desagertaketa erre-
presioaren testuinguruan kokatu behar zela
ziona: Ideario abertzaleari tinko eusteari eta
eguneroko ihardura politikoan hura garat-
zen saiatzeari legeen bidez eta lege kon-
poko "gerra" zikinaren" bidez erasotzen
zaiola. Herriak, bestalde, ziurtasun moral
osoa daukala indar parapolizialen atzetik
Barne Ministeritzako kargu altuak daudela-
koan, eta horrek PSOEren goi mailako
agintariak ere inplikatzin dituela. Bestetik,
implikazio horiek ezin direla egiaztatu iker-
keta lanak Estatuak berak oztzatzen di-
tuelako.

Ondoren bost eskakizun zekartzan mo-
zioak Udalaren izenean exijitzeko: 1. Fer-
minen agerpena. 2. Gertakizunen ikerketa
Barne Ministeritzaren menpean ez dagoen
erakunderen batek eginda. 3. Herri eskubi-
deen jarduna segurtatzeko bide politikoak
hartzea. 4. Gerra zikinarekin eta zehazki
Ferminen desagertetarekin egile eta eragile
gisa zerikusia duten Estatuko indarren
erantzukizunak azkeneraino ikertzea, eta
5. Gertakariak argitzeko Donostiako auzite-
gian eramango diren dilijentzietan Udala
agertzea.

Irakurketa bukatutakoan HBko zinegotzi
batek seigarren puntu bat gehitzea propo-

satu zuen bere taldearen izenean: Udalak
herriarrei dei egitea, biharamunean, igan-
dean alegia, goizeko 9etan hasita Ferminen
bilaketan ariko ziren taldeetan parte hartze-
ko.

Alkateak Gobernu taldea prest zegoela
mozioa eta proposatzen zen seigarren pun-
tua ere onartzeko adierazi zuen, baina sa-
rrera aldatuta, beraren edukiarekin bat ez
zetozelako. Bestetik, hirugarren puntuan,



Alondegiako atea burdinaz itxita.

"bide politikoak hartzea" esan beharrean "bide politikoak sakontzea" esatea proposatu zuen.

HBren mozioan zetorren sarreraren orde, EAK eta EEK beste honako hau jartzea proposatu zuten: "Gure udalkidea den Fermin Urtizberearen desagerteta, hiritarren askatun publikoen aurkako atentatua ez ezik, sistema demokratikoaren oinarriak ere zuzenean erasotzen dituen atentatua da, hau dela eta Udal Korporazio honek ondoko puntu hauek exijitzen ditu:..."

Momentu hartan jendearen arteko batek: "Disco rayo! Etxera joan hadi!" oihuak zuen.

HBko zinegotzi batek ondoko eskabideak ulertzeko aurreko sarrera hura behar zela esan zuen eta bertako argudioak osatzeko idatzi bat irakurri zuen. Idazkiak Ximon lagun zintzoaren egoeraren inolako berri ez jakitea aipaltzen zuen, torturapean zegoela agian, hila behar bada... Inork ez zekiela ezer, eraman zutenen eskuetan zegoela baizik. Eta Josi eta Joxearen kasuak gogoratu zituen. Ondoren, "pakto antiabertzalea" eskaintzen duen "pakea" salatu zuen, presoak jasaten ari diren tratua txarrak, informazioaren terjibertsazioa, e.a. Guzti Honen arrazoiak -zioen idazkiak- herriaren indarraren aurrean beren metodoek izan duten frakasoa datza. Erantzun bat eskatzen diotela Gobernuari -esan zuen-, baina ez zekiela erantzunik eman nahi eta isiltasun horrek konplize egiten dituela. "PSOE, Fermin non dago?" galdeginiak bukatzen zuen. Irakurketa jendearen txaloekin amaitu zen.

Gero, HBko beste zinegotzi batek Gobernu Taldearen jokabidea kritikatu zuen, gauzak leundu eta aurpegia garbitu nahian HBren mozioak behin eta berriz aldatzen zituelako. Horretarako zenbait plenotan jasotako zati batzuk irakurri zituen. Azkenean, aurtengo urtarirako pleno batean esandako hitzak errepikatu zituen, alegia, ez zutela beste partiduen solidaritatekerik funtsean nahi. Ferminek berak esandako ere gogoratu zuen: egunen batean berriz zerbait gertatzen baldin bazitzaion, inork ez zezala orduan alferrik negarrik egin.



Hesiak atzetan pilatun.

Bukatutakoan HBko beste zinegotzi batek honela esan zien gainerako partiduei: "zuen kolaborazioa garbi dago".

Alkateak botazioa egitea proposatu zuen eta orduan berriro jende arteko lehenengo berak "Etxera! Etxera! Ordua duk eta!" esan zion.

Publikoaren aldetik oso era gogorrean zenbaitetan hitz egin zuen batek proposamen berrian testuinguru politikoa ahaztu nahi zela esan zuen. Ferminen kontrako erasoak ez zela zinegotzia delako, HBko delako baizik eta Movimiento Vasco de Liberación Nacional delakoren partaide. Eta, edo HBren mozioa zegoen sagoenean onartu behar zela edo bestela han ez zela beste botatziarik egingo.

Botazioa egitea berriro aipatu zenean txalo jotzen hasi zen jendea protesta moduan.

HBko zinegotzi batek honela esan zuen orduan: "Gu herriak aukeratuak gara eta gure proposamena onartzen ez bada guk ez dugu besterik nahi".

Beste partiduetako zinegotziak isilik zeuden tentsio giro gogor hartan hits egitea ezinezkoa eta alferrikakoa zelakoa. Halako batean jende arteko HBko kide batek EEko zinegotzi batengana zuzenduta honela esan zion: "Halakoa! farre egiten duk! Zakila!". Eta beste norbaitzuek gehitu: "Putaseme hori!", "A ese pasota hay que darle

un carro de ostias!", e. a.

Berriro ere jende arteki hitz egiten zuen batek Lasa eta Zabalaen kasuak berrapertuz "estáis paralizando el movimiento de liberación nacional!" esan zuen. Eta oihu ugariak entzun ziren orduan HBko ez ziren zinegotziak kontra "Txibatuak" Falsos! Txakurrak! Chozizos!" eta abar esanez.

Halako batean, giro ezin larriago batean, botazioa egin zen eta HBren mozioaren alde HBko bost zinegotziek eta EAJko biek eman zuten botoa. EAKo seiek eta EEko biek aurka eman zuten. PSOEko zinegotzia ez zen Plenoan.

"Iros a la mierda!" esan zuen orduan norbait. Zinegotzi ez zen lagun batek esan zuen han ez zela beste botatziarik egongo eta denak kanpora joateko. "Zuek faxixtak zarete terroristak" zioten oihuak entzun ziren.

Orduantxe hasi ziren iskanbila, zalaparta, oihuak eta jipoiak. Makil kolpeak, aulkiak eta mahaiak iraulita, irainak, e.a. Herriko gazte batek mahai batera igota gogor astintzen zuen pleno osoan hitzik ateratzen zuen EEko zinegotzi bat, beste batek espraya hartuta paretan idazteari ekin zion, beste batzuek mahaiburuntz jo zuten garasika eta buztzaka. Irungo batek ia lurrera bota zuen ukabilkada bat eman zion Alkateari okotzean kanpora zihoanean, Plenoan zehar batzutan hitz egin zuen beste batek eskaileretan gora korrika igo eta "Udala, Alkatea, hitzailek" (sic) idatzi zuen Alkatearen despatxoko atearan ondoan. Alondigako paretak eta kanpoko hormak esprayz egindako pintadak bateak gelditu ziren: "PSOE, Ximon non dago?", "PSOE = GAL", "Traidores", "hijoputas", "PSOE hitzaile, PNV, EA, EE laguntzaile", "EE, EA, PSOE, hitzailek", e.a. Ordu bata eta berrogeitamar minutu ziren. Ondoren kanpoko iterea guztietan burdinazko hesiak pilatu zituzten eta ate nagusiko berja, burdina lodia bat bihurturik itxi zuten barruan ziren alkatea eta zinegotziak ateratzen zitezen. Denboraldi bat igarota, azkenekoek ere alde egin zuten eta orduan baretu zen ingurua.

